

**GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA (GZEK)****BEHIN-BETIKO AKTA, 2016-10-18ko OSOKO BILKURARENA**

Gasteizen egina (Apaizgaitegia)

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 67 (4. Aula, *José Zunzunegi*)

DEIALDIAREN EGILEA:

Presidentea: **Angel Toña Guenaga jauna.**- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.

ETORRITAKO KIDEAK**A) KIDE BAKARREKO ORGANOAK:**

▪ **PRESIDENTEORDEA.** **Lide Amilibia Bergaretxe andrea.**- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea, **jarduneko presidente** eginkizunetan, presidentea ez dagoelako.

▪ **IDAZKARIA.** **Iñaki Serrano Lasa jauna,** Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzaren aholkulari juridikoa, (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako Gizarte Gaietako arduradun José Luis Ramos García jaunaren ordeza), Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

B) KONTSEILUKIDEAK:

Emilio Sola Ballojera jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

José Javier Miguel de la Huerta jauna.- Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Juan Ibarretxe Karetxe jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendaria.

Ignacio Basañez Alfonso jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitzako zuzendaria.

Jesús Alfredo Ispizua Zuazuak jauna.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Ekonomiako zuzendaria.

Mónica Hernando Porres andrea.- Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria.

Cristina Madinabeitia Olariaga andrea.- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Turismo Zuzendaritzako teknikaria.

Mari José Arrieta Sagarna andrea.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren ordezkaria.

Nerea Antia Vinós andrea.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko aholkularia.

Ana Alberdi Zubia andrea.- EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

Marian Olabarrieta Ibarrondo andrea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

Carlos Alfonso Artola jauna.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren Plangintza, Inbertsio eta Prestazio Ekonomikoetako zuzendari nagusia.

Imanol Madariaga Sasieta jauna.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuko Zerbitzu Orokorretako zuzendaria.

Dorleta Goiburu andrea.- EUDELeko teknikaria.

Eneko Maioz Ganboa jauna.- EUDEL (Orexako alkatea).

Ane Beitia Arriola andrea.- EUDEL (Portugaleteko Udaleko zinegotzia).

Karmele Acedo Gil andrea (Servicios Sociales Integrados S. Coop.elkartea).- Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Konfederazioko ordezkaria.

Luis Pérez Fernández jauna.- Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Psikologoaren Elkargoetako ordezkaria.

Josu Gago Palacios jauna (Agintzari S.Coop).- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

Natalia Díez-Caballero Alonso andrea. (HIRUKIDE-Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkartea).- Familiaren Batzorde Iraunkor Sektorialeko ordezkaria.

Xuria Arza Vélez andrea.- UGT Euskadi.

Gotzon Villaño Murga jauna.- EAEko Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialak.

Consuelo Ordejón Caballero andrea (Gizarterako Elkartea).- EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordearen ordezkaria.

M^a José Cano Mesías andrea. (FEDEAFES federazioa).- Gaixotasun Psikikoa duten pertsonen eta senideen Elkarleen Euskadiko Federazioa.

Pablo González Gutiérrez jauna. (FEVAS federazioa).- Desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko Elkarleen Euskal Federazioa.

José Manuel Odriozola Azurmendi jauna (EUSKO FEDERPEN).- Euskadiko Pentsionisten eta Erretiratuen Elkarrekin Probintzialen Lurralde Federazioaren ordezkaria.

Manu Moreno Gil jauna (Euskadiko EAPN).- Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorreko ordezkaria.

Teresa Maura Barandiaran andrea (Harresiak Apurtuz).- Etorkinei laguntza emateko GKEen Koordinakundeko ordezkaria.

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE

José M^a Barrutia Legarreta jauna.- Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomia eta Plangintzako zuzendaria.

Ana M^a Reka Esparza andrea.- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Departamentuko Kabineteko zuzendaria.

Felisa Piedra Gao andrea.- CCOO Euskadi.

Juan Carlos Sola Guzmán eta Mikel Malkorra Otxotorena jaunak, EAEko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailearen (ELKARTEAN) ordezkariak.

Javier Domínguez Entenza jauna. (ONCE Euskadi).- EAEn zentzumeneko desgaitasunen alorrean lan egiten duten elkarleen ordezkaria.

Ana Ureta Basañez andrea.- ALDARTEko ordezkaria (Gay, lesbiana eta transexualen arretako zentroa).

ETORRI EZ DIREN KIDEAK

Eusko Legebiltzarraren **ordezkari bat.**

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren **ordezkari bat.**

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren **ordezkari bat.**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren **ordezkari bat**.

EUDELen **bi ordezkari**.

EAEko Gizarte Hezitzaileen Elkargoaren **ordezkari bat**.

ELA sindikatuaren **ordezkari bat**.

LAB sindikatuaren **ordezkari bat**.

Enpresa-erakundeetako (CONFEBASK) **lau ordezkari**.

EAEko droga-mendekotasunaren arloko erakundeen **ordezkari bat**.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren **ordezkari bat**.

KONTSEILUAK GONBIDATUTA BATZARREAN IZAN DIREN HAINBAT PERTSONA (KIDE IZAN GABE):

Luis Pérez Fernández jauna.- Bizkaiko Psikologoen Elkargo Ofizialaren ordezkaria.

Juan Carlos Jiménez Barrul jauna.- Ijito Herriaren Kontseiluaren ordezkaria.

Iñaki Betolaza San Miguel jauna.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Farmaziako zuzendaria (gai-zerrendako bigarren puntua aurkezteko).

.....

LANDUTAKO GAIK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK

Behar adinako quoruma egonda, lehenengo deialdian baliotasunez eratu da osoko bilkura, aurretik idatziz bidalitako deialdian adierazitako egunean eta lekuan. Saioa 2016ko urriaren 18an, goizeko 10:10ean hasi da, presidenteak zehaztutako **gai-zerrenda** honekin:

- | |
|--|
| <ol style="list-style-type: none"> 1. Aurreko bilerako akta irakurtzea eta onartzea (2016/07/06). 2. Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitzetako Farmazia-zerbitzuei eta Sendagai-biltegiei buruzko Dekretuaren gainean egindako txostenaren azalpena. 3. Etxerik gabeko Pertsonen Estrategiari buruzko informazioa. 4. Eskerak eta galderak. |
|--|

.....

1. puntua.- Aurreko bilerako (2016-07-06) akta onestea.

Bidalitako behin-behineko dokumentuari ohar pare bat egin ondoren, 2016ko uztailaren 6an egindako aurreko Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da.

2. puntua.- Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitzetako Farmazia-zerbitzuei eta Sendagai-biltegiei buruzko Dekretuaren gaineko txostena.

Osasun Saileko Farmazia arloko zuzendari Iñaki Betolazak azaldu ditu Dekretu-proiektuaren eduki nagusiak. Sarrerako hitzetan azaldu duenez, ahalegina egin da hizkera sozialagoa emateko, koordinazio soziosanitarioaren markoan, izan ere, testua ulergaitza baitzen, farmaziaren arloari dagozkion edukiez betea. Gainera, eremu horretan lanean ari diren erakundeei kudeaketa-eredua azaltzeko ahalegina ere egin da. Aplikazioaren eremua, azken bertsioan agertzen ziren zentro soziosanitarioak izan beharrean, oraingo honetan adineko pertsonentzako egoitzak dira, eta horiei beste hainbat zentro erantsi zaizkie, foru-aldundiek proposatuta, Xedapen Gehigarri bakarrean: desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza-zentroak. Testuinguru horretan, 294 egoitza erroldatu dira.

Aurkezleak arauaren hiru zutabe azpimarratu ditu. Lehenik eta behin, arauaren oinarria da Euskadiko Ordenamendu Farmazeutikoko 11/1994 Legearen garapena eta Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurrean hartutako konpromisoa. Bigarrenik, arauaren asmoa da aurrerapausoak ematea zentro horien eraginkortasuna eta jasagarritasuna hobetzeko bidean. Eta azpimarratu duen hirugarren zutabe gakoa da adineko pertsonen farmazia-arretaren garapena. Hau da, prestazio farmazeutikoaren kalitatea hobetzea, hain zuzen ere, pertsona horien osasun-arazoekin bateragarria den botiken erabilpenaren jarraipena eginez. Helburua da errezeta elektronikoaren ezarpena 2017ko lehenengo hiruhilekorako burutzea. Dekretuak bat egiten du gizarte-zerbitzuetan indarra duen legediarekin, horretarako aldatuz adinekoen egoitza-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren eranskina. Adinekoentzako egoitzek farmazia-zerbitzu bat edo sendagai-biltegi bat izango dute, ohe-kopuruaren arabera.

• **Pablo González jauna, FEVASekoa, kexu agertu da, proiektua hainbat zentrotan jaso dutelako, baina ez zentroak kudeatzen dituen erakunde gisa. Aipatutako xedapen gehigarri bakar hori ezabatzeko eskatzen zuen lehenengo alegazioan kasurik egin ez bazaie ere, eskertu du beste bi alegazioetan, aplikazioaren atalaseari buruzkoan eta funtzionamendu-exijentziak arintzeari buruzkoan, arreta jaso izana.**

Atsekabea adierazi du FEVAS GIZARTERATZE OSOA EUSKADI erakundeak ez duelako aukerarik izan dekretua lantzeko prozesuan parte hartzeko, izan ere, erakundea osatzen duten elkarteak eragile ezagunak baitira adimen-urritasuna duten pertsonentzako eta haien familientzako zerbitzu ugariren ordezkari nahiz kudeatzaile gisa.

Hala ere, dekretuaren zirriborroa alegazioak egiteko garaian erakundearen egoitzan jaso ez bazuten ere, FEVAS GIZARTERATZE OSOA EUSKADI erakundeak hiru alegazio igorri zituen idatziz.

Haietako bi, ohe-kopurua 25ean jartzen zuen atalaseari buruzkoa, eta zenbait eskakizun sinplifikatzeari buruzkoa, jaso dira Euskal Gizarte Zerbitzuen Kontseiluari aurkezten zaion testuan, eta hori eskertu egin du.

Baina oso kezkatuta agertu da, izan ere, dekretuaren izenburua izanik “EAEko adinekoentzako egoitzetako farmazia-zerbitzu eta sendagai-biltegiei buruzko dekretua”, eta pentsatua izanik adineko pertsonen inguruetan jarduteko, dekretu hori aplikagarria da, xedapen gehigarri baten bidez, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan.

FEVAS GIZARTERATZE OSOA EUSKADI erakundeak hainbat forotan adierazi izan du errespetatu behar dela arauak adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuen artean ezartzen dituzten desberdintasunak, esku-hartzeko ereduari erreparatuta.

Iñaki Betolaza jaunak dio alegazioak aintzat hartu zirela, ohiko bidetik iritsi ez baziren ere. Teknika juridikoaren arrazoiak tartean, foru-aldundiek desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak dekretu horretara biltzeko egin zuten eskaera aintzat hartzea erabaki da.

Jarraian, Dekretuaren aldeko txostena bozkatu da eta hau izan da emaitza: 19 boto alde, 4 abstentzio eta 1 kontra.

3. puntua.- Etxerik gabeko Pertsonen Estrategiari buruzko informazioa.

• Gizarte Zerbitzuetako sailburuorde **Lide Amilibia andreak** jakinarazi du batzorde tekniko-politiko bat lanean ari dela Estrategia horretan, bertan biltzen direla foru-aldundiak, hiru hiriburuak, Getxoko Udala, EUDEL eta Eusko Jaurlaritzako zenbait zuzendaritza.

Estrategia ondu ondoren, Elkarrietzeta Zibilerako Mahaira eramango da, hirugarren sektore sozialaren ekarpenak jasotzeko, eta ondoren OISS eta GZEK erakundeak iritziak jasoko dira. Azkenik, hurrengo Gobernuak egoki irizten badio, Parlamentura eramango da, haren ekimenez landu baitzen Estrategia.

Dokumentua, azkenean, orientatzailea izango da, gidalerro modukoak eskainiz, erakundeek aukera ditzaten helburuak betetzeko bideratuko dituzten ekintza zehatzak. Gaur gaurkoz, diagnostiko bat lantzen ari da. Estrategiarekiko atxikipena beren borondatearen arabera



erabakiko dute instituzioek, eta instituzio bakoitzari dagokio finantzaketa, baina kontsentsuak garrantzitsua izan behar du. 2020raino luzatzea proposatu da, Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemaren Maparekin lotuta, haren baliabide zenbait etxerik gabeko pertsonentzat bideratuta baitaude.

Azkenik, jakinarazi du oso erantzun ona jasotzen ari dela instituzioen aldetik egiten ari den informazio-bilketan. Lankidetzako protokoloaren markoan aurreikusten denez, urte bikoitietan zenbaketa egin behar da, eta urte bakoitietan zenbaketaren datuak ezagutarazteko jardunaldiak egin behar dira. Hortik abiatuta, urrunago joan liteke ikerketa eta proiektuak eginez.

• **Manu Moreno jaunak**, EAPN Euskadiko ordezkariak, adierazi du poz handiz sustatzen dutela Eusko Jaurlaritzak lideratzen duen Estrategia hau, eta lehenbailehen ezartzea nahi lukeela eta, behar den unean, laguntzeko prest daudela.

• Ijitoen Herriko Kontseiluaren ordezkari **Juan Carlos Jiménez jaunak** dio ijito herrian etxerik gabeko pertsonen ezaugarriak oso desberdinak direla, horregatik nahi dituzte ekarpenen bidez beren arazo bereziak azaldu.

Lide Amilibia andreak erantzun du ildo horretatik, dokumentua ijitoen elkarteei helaraziko zaiela.

• **Ana Alberdi andreak**, EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundearen ordezkariak, gogora ekarri du EMAKUNDEN diagnostiko diferentziala egin dutela, arazoak ere desberdinak baitira, sexuaren arabera.

Lide Amilibia andreak erantzun du etxerik gabeko pertsonen arazoa generoaren ikuspegitik aztertzen duen ikerlana jasoko duela Estrategiak.

• FEDERPENeko **Txema Odrizola jaunak** galdetu du ea Estrategiak konponbiderik planteatzen ote duen etxerik gabe beraiek hala nahita bizi direnen kolektiboarentzat.

Lide Amilibia andreak erantzun du dokumentuak jaso behar duela kolektibo horri begirako esku-hartze berezia, izan ere, egiaz, kolektiboa ez baita homogenea.

Emilio Sola jaunak dio pertsona horiekin egin beharko litzatekeela Zorroari buruzko Dekretuko zerbitzuetako bat, esku-hartze sozio-hezitzailea, hain zuzen ere.

• Harresiak Apurtuz taldeko **Teresa Maura andreak** mahaira ekarri du pertsona horiei harrera egiteko zentroek planteatzen dituzten gehiegizko baldintzen auzia, izan ere, haren aburuz, baldintza horiek samurtu beharko lirateke.

Emilio Sola jaunak erantzun du auzia ez dela berria, eta horretarako, zerbitzuak eskuratzeko Zorroan ezartzen diren zenbait baldintza malgutu beharko liratekeela.

• EAEko Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialen ordezkari **Gotzon Villaño jaunak** Estrategiaren zirriborroa jaso nahi lukeela adierazi du, ekarpenak egin ahal izateko.

4. puntua.- Eskaerak eta galderak.

• **Manu Moreno** EAPN Euskadiren ordezkariak jakinarazi du urriaren 17an, pobreziari aurre egiteko eguna zela eta, manifestu bat egin zutela eta ahal den hedapenik handiena eman nahi diotela.

Lide Amilibia andreak dio posta elektronikoz bidaliko zaiela Kontseiluko kide guztiei.

• FEDERPENeko **Txema Odrizola jaunak** eskatu du Kontseiluaren funtzionamendurako aurreikusten den egutegia azaltzeko.

Lide Amilibia andreak erantzun du Estrategia ontzeko prozesuaren arabera moldatuko dela egutegi hori. Azkenik, eskerrak eman dizkio foro honi legealdian zehar erakutsi duen jarrera

adeitsu eta langileagatik, eta gogora ekarri ditu bi une berezi, alegia, Zorroaren Dekretua eta Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legea onartu zireneko uneak.

Beste galde edo eskerik ez dagoenez, eta bertaratu diren pertsonen eskerrak emanez, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluko presidenteak bilkura amaitutzat eman du, 2016ko urriaren 18an, goizeko 11:10ean.

IDAZKARIA

Iñaki Serrano Lasa

**O.E.
JARDUNEKO PRESIDENTEA**

Lide Amilibia Bergaretxe